



## **MAHASTI-LANDAKETA BERRIETARAKO ONARGARRITASUN-IRIZPIDEAK** **CRITERIOS DE ADMISIBILIDAD PARA NUEVAS PLANTACIONES VIÑEDO**

### **MAPAMA 2020**

#### **(1338/2018 Errege Dekretua eta bere aldaketak)**

Eskatzaileak, 1338/2018 Errege Dekretuak eta bere aldaketek 8. artikuluan ezartzen dituen hauek bete behar ditu:

1. Eskatzen den baimenaren xede den mahasti-landaketa egiteko **nekazaritza-azalera (EZ BASO LURRA)** eduki behar du erabilgarri, jabetzan, errentan, apartzerian edo zuzenbidearen araberrako beste edozein modu dela bide. **Jabetza eskirrita edo arrendamendu kontratua (dagokion zerga ordaindua) aurkeztu beharko ditu.**

Mahasti-landaketa berrietarako baimenaren xede den azalera ez du ebatzi gabe izan behar erabilera-aldaketarako baimenik edo beste baimenik.

Eskatzailea ez bada jabea, haren adostasuna behar du landaketa egiteko. **Adostasuna sinatua aurkeztu beharko da, eransten den ereduaren modukoa.**

2. Ahalmen eta gaitasun profesionala izatea, modu hauetakoren batean egiaztatuta:
  - 2.1. Bost urteko esperientzia profesionala izatea egiaztatuta. Hori justifikatzeko beharrezkoa da: nekazaritza-jardueraren Gizarte Segurantzaren araubideko alta edo REGEPAko ustiategi baten titularra izatea edo mahasgintza erregistroan mahastizain izatea edo nekazaritzako diru-sarreraren egiaztagiria. Baldintza hori ezin bada bost urtean bete, nekazaritzan gaitzeko ikastaro edo mintegietara joan izanaren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu eskatzaileak baldintza hori egiaztatzeko, eta egiaztatu gabeko urte bakoitzeko 30 ikastordu ziurtatu beharko ditu.
  - 2.2. Nekazaritzako langileburua izateko probak gaindituta izatea edo hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako titulu akademiko hauetakoren bat edukitzea: Oliba-olioaren eta ardoen arloko teknikaria, Mahastizaintzako goi-mailako teknikaria, Nekazaritza eta abelazkuntzako teknikaria edo Paisajismo eta landa-ingurunekeo goi-mailako teknikaria.

### **MAPAMA 2020**

#### **(Real Decreto 1338/2018 y sus modificaciones)**

El solicitante deberá cumplir lo que fija el artículo 8 del RD 1338/2018 y sus posteriores modificaciones:

1. Tener a su disposición, para poder realizar una plantación de viñedo, en propiedad, o en régimen de arrendamiento o aparcería o cualquier otra forma conforme a derecho, la **superficie agraria (NO FORESTAL)** para la que se solicita la autorización. **Presentar escritura de propiedad o contrato de arrendamiento y liquidación del impuesto correspondiente.**

La superficie para la que se solicita autorización para nuevas plantaciones de viñedo no debe de tener pendiente ningún permiso de cambio de uso o permiso.

Si el solicitante no es el propietario, se necesita consentimiento de éste para realizar la plantación. **Deberá presentar el consentimiento firmado según modelo que se adjunta.**

2. Tener capacidad y competencia profesionales en alguna de las siguientes condiciones:
  - 2.1. Tener cinco años de experiencia profesional acreditada que se podrá justificar mediante alta en el Régimen de la Seguridad Social de la actividad agraria o siendo titular de explotación en el REGPEA o siendo viticultor en el registro vitícola o con la comprobación de tener ingresos agrarios. En caso de no poder cumplirlo para los cinco años se deberá acreditar mediante la presentación de certificado de asistencia a cursos o seminarios de capacitación agraria con una duración de 30 horas lectivas por cada año no acreditado.
  - 2.2. Haber superado las pruebas de capataz agrícola o estar en posesión de títulos académicos de formación profesional del sistema educativo de Técnico en aceites de oliva y vino, Técnico Superior en vitivinicultura, Técnico en producción agropecuaria, o Técnico Superior en paisajismo y medio rural.



- 2.3. Bertaratze- eta aprobetxamendu-ziurtagiria edukitzea, nekazaritzako enpresa instalatzeko ikastaroetakoa eta beste ikastaro osagarri batzuetakoa; gutxienez ere 150 ordu egiaztatu behar ditu eskatzaileak ikastarotan, eta edozein autonomia-erkidegok aitortuak izan daitezke.
- 2.4. Eskatzaileak nekazari gazteak instalatzeko laguntza jaso izana.
- 2.5. Eskatzaileak lehenetasunezko nekazaritzako ustiategi bat edukitzea.

***Eskaerarekin batera, gaitasun profesionala egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da, aurreko 5 baldintzetako batena gutxienez.***

Pertsona juridiko batek, bere forma juridikoa gorabehera, ahalmen eta gaitasun profesional egokiak dituela ulertuko da baldin eta pertsona juridiko horren gaineko benetako kontrola 2.1-2.5 azpiparagrafoen arabera ahalmen eta gaitasun hori duen pertsona fisiko batek edo batzuek egiten badute. Horretarako, pertsona fisiko horrek (edo horiek) erabakitzeke boterea izan behar du(te) pertsona juridiko horren baitan, eta, horretarako, pertsona juridikoaren kapital sozialean du(t)en partaidetza handiagoa izan behar da kapital sozial horren erdia baino eta, gainera, boto-eskubideen erdia baino gehiago eduki behar du(te).

- 2.3. Poseer certificado de asistencia y aprovechamiento a los cursos de instalación a la empresa agraria y otros cursos complementarios con una duración mínima de 150 horas, reconocidos por cualquier comunidad autónoma.
- 2.4. Solicitante al que se le haya concedido la ayuda a la instalación de jóvenes agricultores.
- 2.5. Solicitante que posea una explotación agraria prioritaria.

***Deberán presentarse junto con la solicitud, los documentos que acrediten al menos una de las 5 condiciones anteriores respecto a la capacidad y competencia profesional.***

Se considerará que una persona jurídica, independientemente de su forma jurídica, tiene la capacidad y competencia profesionales adecuadas cuando el control efectivo sobre la persona jurídica sea ejercido por una persona física o personas físicas que tiene dicha capacidad y competencia conforme a los subpárrafos 2.1 a 2.5. Para ello, la persona física o personas físicas en cuestión deberá tener el poder de decisión dentro de dicha persona jurídica, lo que exige que su participación en el capital social de la persona jurídica sea más de la mitad del capital social total de ésta y que posea más de la mitad de los derechos de voto dentro de la misma.